

## IPUIN-IDAZLEA

Fabrika baten ugazaba zan fameli batek seme bakar bat zeukan. Etxerako izango zala uste eben gurasoek, baiña ez eban fabrikan-tetzarako urten semeak.

Gaztetan bere, eskolara ibiltzen zanean, kontu-liburuak eskatzen eutsazan maixuari, eta zaletasun aundia eukan kontu-liburuak irakurtzeko.

Euskerazko libururik ez eguan eskolako liburutegitxoan. Kirikiñoren ipuiak, edo Urruzunorenak, edo Mañarikorenak, edo besteren batzuk euki bazituan, pozik be irakurriko zituan arek, baiña erderazkoak bakarrik egozan an. Alhambrako ipuiak, Andersenena, Grimm Anaienak eta irakurri ebazan pozik.

Bein egun batean, kontu labur bat bere idatzi eban. Asmatutakoa zan, bere burutik ateratakoa, baiña Alhambrakoen antzera egia.

Gero, azi zanean, eta mutil aundi egin, kontu asko asmetan eban, batez bere umientzako eta gaztientzako.

Eskeko ez, baiña aberastanik be ez eban ezagutu. Orraitiño ogi bako egunik ez eban euki, ta lo egiteko ogerik be ez jakon faltau. Zorionez, biotz onekoak be badira oraindikan mundu onetan, eta bordindate onagaz lagundu zioten iñoiz gaixorik egon zanean.

Lagun eta adiskide asko euki ebazan alde askotan, batez be umien artean, eurentzako kontuak idatzi ebazalako.

Bere gurasoek zoritxar aundizat eukien a euren seme maitearen bizitza a. "Diruz beteta bizi bear leuken seme au, ona emen zelan ikusten dogun", esaten eben.

Baiña diruz beteta egun guztian fabrika barruan baiño pozago eta zoriontsuago bizi izan zan umientzako kontuak idazten, aixe zalako Jaungoikoak emon eutsan bidea eta eginbearra mundu onetan.